

Internet berria eta ni

[Javier Portillo Berasaluce](#)
Sistemen Ingeniaritza eta Automatika
Euskal Herriko Unibertsitatea

[Jesús María Romo Uriarte](#)
Sistemen Ingeniaritza eta Automatika
Euskal Herriko Unibertsitatea

[Manuel Benito Gómez](#)
Hezkuntzako Ikerkuntza eta Diagnosi Metodoak
Euskal Herriko Unibertsitatea

Internet fenomeno bezala ez da berria, esan daiteke denok ezagutzen dugula eta gazteak direnentzat betidanik egon dela hor beraien ondoan. Baina azken urte pare honetan joera berriak gertatu dira Internet barruan, eta joera hauei esker Internet bera errotik aldatzen ari da. Hitz bitxien bildumak egiten dituztenentzat Internet berri honi **web 2.0** esaten zaio eta gehiago jakin nahi duenak [1] eta [2] erreferentzia bibliografikoetan aurki dezake informazio zehatza, guk artikulu honetan web 2.0 definitu ordez nola erabili erakusten saiatuko gara.

Aspaldiko Internet eta egungo Internet berriaren arteko desberdintasun bakar bat nabarmendu beharko bagenu, erabiltzailearen jokamoldea izango litzateke. Hau da, eta oso modu orokorrean hitz eginez, aurreko Internet eremuan gutxi batzuek argitaratzen zuten eta gainerako guztiok informazioa bilatu eta kontsumitu egiten genuen, Internet zen gehienontzat **liburutegi** erraldoi bat. Gaur egun, aldiz, edozeinek eduki dezake bere txokoa Internet berrian eta edozeinek argitara dezake informazioa, Internet berriak ahalbideratzen du guztion partehartzea aktiboa izan dadila, horregatik esan daiteke Internet berria guztiontzat **inprimategi** (edo "inprimatoki" bertan idatzi ahal delako) bat dela ere. Artikulu honek atea irekiko dio mundu hau kanpotik ikusi baina oraindik barnera murgildu ez denari.


Para hacer referencia a este artículo:

Portillo, J.; Romo, J.M. & Benito, M. (2008). Internet berria eta ni. *Ikastorratza, e- Revista de Didáctica*, 2. Retrieved from http://www.ehu.es/ikastorratza/2_alea/internet.pdf (issn: 1988-5911).



Zein da Internetekiko nahi duzun harremana?

Era eskematikoan adieraziz Internet erabiltzaile zaren horrek hiru jokamoldez jokatzeko gaitasuna daukazu. Lehen jarrera erabiltzaile **hartzaile**arena izango litzateke, Internet hor dago eta erabiltzaile hartzaile da bilatzen duen informazioaz baliatzen dena, Internetekiko jarrera hau guztiok daukagu eta kasu honetan Internet liburutegizat jotzea analogia zuzena da. Internauten bigarren jarrera **web pertsonala** garatu duenarena litzateke, kasu honetan erabiltzaileak sortzen duen informazioa mundura kanporatzen du baina ez du mundutik elkarrekintzarik jasotzen ezta berrelikadurarik ere. Aurreko eskema biak betidaniko Internetenak lirateke eta orain deskribatuko dugun erabiltzaile **sortzaile**aren hirugarren jokamoldea Internet berriari dagokio, Internet berriak benetako erraztasunak ematen dizkigu geure informazioa idatzi eta argitaratzeko eta besteek plazaratutako informazioa osatzeko, aberasteko edo eta eztabaidatzeko. **I1** irudian hiru jokamoldeen marrazkiak agertzen ditugu eta ikusten denez **B** eta **C** jokamoldeen eskemak antzekoak dira, nahiz eta sakonean oso desberdinak izan, Internet berriak bi ekarpen ekarri ditu: bat teknologikoa (web guneak sortzeko ez da programaziorik behar); eta bestea kontzeptuala, Internet ez da bakarrik toki bat non informazioa erakusten den, baizik eta argitaratutako informazioari gure ikuspegia gehitu ahal diogu, liburutegia izateaz gain Interneten idazteko benetako aukera dugunez Internet berria nolabaiteko inprimategia da ere.



I1. Interneten zuk daukazu jokamoldea ez da beti bat izaten, lehen biak A eta B Internet klasikoaren erabiltzailearen jarrerak dira eta C hirugarren jokamoldea Internet berriak eragindakoa da



Internet zerbitzu batean erregistroa egiten

Interneten ehunka zerbitzu dago, asko eta asko doakoak, eta gehienetan derrigorrezkoa da zerbitzuan erregistroa egitea erabili ahal izateko. Eskuarki, oso datu gutxi eskatzen digute erregistroa egiterakoan baina ia beti eskatuko digute gure posta elektronikoa. Hona hemen erregistroa burutzeko bete behar ditugun urratsak:

1. Zerbitzuaren atariko orrialdea nabegatzailean kargatu. Esate baterako, jarraian erakusten den **T1** taulan bigarren zutabean dagoen informazioa
2. Zerbitzuaren atariko orrialdean **sign up** izeneko esteka edo botoia bilatu eta bertan sakatu. Adibidez ondoko **I2** irudian zenbait zerbitzutan erregistro egiteko estekak nola agertzen diren erakusten da
3. Bete ezazu inprimakian eskatzen diren datuak. Gehienetan zerbitzua erabiltzeko kodeak (erabiltzailearen izena eta erabiltzailearen pasahitza) zure posta elektronikoa jasoko dituzu. **I3** irudian erakusten da nolako itxura duen erregistroa egiteko inprimaki batek

Une honetatik aurrera zerbitzu hori erabili ahal izango duzu eta bere helburuarekin bat datozen eragiketak burutu ahal izango dituzu. Esate baterako, eta oso zerrenda murrizta eginez, hona hemen hainbat Internet zerbitzu:

Izena	Helbidea	Zerbitzua
YouTube	www.youtube.com	bideo fitxategiak zerbitzura igo, eta igotakoak elkar banatzea
VideoEgg	www.videoegg.com	aurrekoaren antzekoa
Stickam	www.stickam.com	webcam baten bitartez hartutakoa argitaratzea
Flickr	www.flickr.com	argazkiak elkar banatzea
Photobucket	www.photobucket.com	argazki bildumak elkar banatzea
Picasa Web	picasaweb.google.com	aurrekoaren antzekoa
Tagzania	www.tagzania.com	kokapen geografikoak etiketatzea
Wayfaring	www.wayfaring.com	aurrekoaren antzekoa
Zoomr	beta.zoomr.com	aurrekoaren antzekoa
Wikiloc	www.wikiloc.com	GPS kokapenak zehazteko aplikazioa
Odeo	www.odeo.com	audio (podcast) fitxategiak sortu edo eta aurretik ditugunak zerbitzura igo, fitxategi horiek entzuteko multimedia erreproduzigailua lortu
ChatCreator	www.chatcreator.com	txat edo berriketa gelak sortzeko aplikazioa
Gabbly	www.gabbly.com	aurrekoaren antzekoa
SlideShare	www.slideshare.net	Power Point fitxategiak web bidez ikusteko aplikazioa
Netvibes	www.netvibes.com	norberaren hasiera-orria

T1. Zenbait zerbitzuren izenak, helbideak eta helburuak

Erabiltzaileek euren edukiak Interneten argitaratzeko aukera edukitzea izango litzateke zerbitzu horien funtsa nagusia. Beraz, gu geuk gure argazkiak, bideoak, audioak eta gainerako baliabideak plazaratu ahal izango ditugu Internet den agora berri honetan.



12. Internet zerbitzuetan erregistroa "Sign Up" esteka bitartez egin ohi da

A registration form for Wikiloc. The title is 'Join Wikiloc'. Below it, the text says 'Create your free account, just fill out the account info below:'. The form has several input fields: 'Name/Nick:', 'EMail:', 'Password:', 'Confirm Password:', and a CAPTCHA field with the text 'Please type the characters you see in the picture below' and a box containing the word 'EVONY' in a stylized font. At the bottom, there are 'Sign up' and 'Cancel' buttons. The Wikiloc logo is in the bottom left corner.

13. Internet zerbitzuetan erregistroa egiteko bete behar den web inprimakian datu gutxi eskatzen dira

Nire datuak eta aplikazioak Interneten



Gure ordenagailuaren idazmahaiari kokatzen ditugu gehien erabiltzen ditugun aplikazioen ikonoak. Horrela, ordenagailuaren idazmahaiari abiapuntua da eta berari esker, bertan kokaturik dauden aplikazioak erraz exekutatu ditugu gure datuekin lan egin dezaten. Web 2.0 filosofiaren arabera eguneroko programak ordenagailuan instalatuta egon beharrean Interneten egon daitezke

eta gauza bera datuentzat, datuak ere Interneteko zerbitzarietan gordetzen badira edozein ordenagailutik atzitu eta prozesatuko ditugu. Internet berrian, ordenagailu batetik baino gehiagotik lan egiteko joera daukagunez, ordenagailuaren idazmahaia "norberaren hasiera-orrria" izango litzateke, erabiltzaileak bere hasiera-orrria eraiki ahal izateko dauden zerbitzuen artean **Netvibes** hautatu dugu azalpena hobeto egiteko.

Hasiera-orrria, web zerbitzua izanik, nabegatzailean kargatzen da eta edozein ordenagailutik lan eginez (etxetik, eskolatik, lanetik, etab.) beti aurkeztuko digu informazio bera. Hasiera-orri baten itxuraz jabetzeko **14** irudian erakusten da **Netvibes** zerbitzuak eskaintzen duena, informazioaren egituraketa bermatzeko hasiera-orrria ataletan banatzen dugu (adibidean: **Hasierakoa, Wikiak, Bideoak, Albisteak, Irakaskuntza, Tekno, Argazkiak**) eta atal bakoitzean panel desberdinak kokatzen ditugu, panel horiek berezko informazioa eskaintzen dute oso modu sintetikoan eta hortik abiatuta ireki daiteke informazio osoa duen web gunea edo Internet zerbitzua. Adibidearekin jarraituz **Hasierakoa** delako atal horretan panel hauek daude:

- *Gmail* posta elektronikoa aztertzeko panela (4 mezu daude irakurtzeko)
- Eguraldiaren iragarpena (tokia definitzerakoan Bilbo hiria aukeratu da)
- *Google Map* zerbitzuan interesguneak bilatzeko tresna
- *Web Search* bilatzailea (kamera bati buruzko informazioaren bilaketa burutu da eta emaitzen zerrendatik abiatuta jatorrizko web gunetara hel gaitzeko)
- *Bookmarks*, ohiko web guneen laster-markak gordetzeko tresna (adibidean **euskera** etiketaz kategorizatu diren web guneak agerian daude)



14. Ene eguneroko jarduerako informazioa nire hasiera-orrian bildu eta antolatu egiten dut

Hasiera-orri batean informazio panelak txertatzea oso erraza da, bi bide nagusi daude. Batetik, hasiera-orria bermatzen duen zerbitzuak eskaintzen duen zerrendatik interesatzen zaigun panela aukeratzea, eta, bestetik kanal edo jario berezi bat sortzea zerrendan ez dagoen web gune bateko informazioa panel batean biltzeko. Azken ekintza hori RSS sindikazioaren bitartez egiten da eta duen garrantziagatik hurrengo atalean jorratuko dugu astiro.









RSS sindikazio kanalak

Internet berriak gure edukiak argitaratzeko ahalmena ematen digula esan dugu artikulua hasieratik, eta alde horretatik **inprimategi** horretan eragile sortaileak bihurtuko gara. Baina edukiak argitaratzeaz gain, orain arte bezala, gure gogoko diren web guneek plazaratzen dituzten berrikuntzak irakurtzea interesatzen zaigu ere. Dakigunez ez da erraza gogoratzea web gune guztien helbideak, eta gogoratuta ere berrikuntzarik jazo den ikusteko web gunea bisitatzera behartuta gaude. *Ez litzateke errazago izango, ni web gune batetik bestera berriak bilatzen eta biltzen ibili beharrean, gertatu diren berrikuntza horien abisua edukitzea?* Ba hori da, hain zuzen ere, RSS (Really Simple Syndication) funtzioaren helburua.

Sindikazio hitzaren esanahia testuinguru honetan honako hau da: informazio iturburu batean “nolabaiteko harpidetza egiten dut” eta informazio iturburuaren edukietan aldaketak izango direnean, nik erabiltzen dudana programa batean abisua jasoko dut (adibidez: nire hasiera-orrian). Horren ondorioz bi web guneak elkartzen dituen informazio kanal bat (edo informazio jario bat) edukiko dut eta berehala izango dut aldaketen berri.

Maiztasun handiz aldatzen diren web guneak nolako berrikuntzak izan dituzten jakiteko sindikazioa ezinbesteko tresna da. Teoriatik praktikara jauzi eginez RSS sindikazioa honela egingo dugu, urratsez urrats:


1. Informazio iturburu den web gunean honelako ikonoren bat       bilatuko duzu. Esate baterako www.zientzia.net orrialdean agertzen dena **15** irudian erakusten da
2. Ikonoaren gainean sagua jarri ondoren, saguaren bigarren botoian sakatu eta “Kopiatu loturaren helbidea” aukera hauta ezazu

3. Daukazu RSS irakurgailu programara joan eta sor ezazu sarrera berri bat, sortutako sarrera berria lehenago kopiatu dugun loturaren helbidea itsatsi. Horrekin lortuko duzu www.zientzia.net orrialdean berrikuntzak gertatuko direnean, zure RSS irakurgailuan aldaketen berri edukitzea



15. Kanal edo jario bati dagokion helbidea eskuratzeko saguaren bigarren botoia erabili behar da

RSS helbidea itsatsi aurretik gure hasiera-orrian geneukan informazioa **14** irudian erakutsi dugu, eta RSS helbidea itsatsi ostean panel berri bat daukagu (ikus **16** irudia) bertan www.zientzia.net web gunean 9 artikulu irakurtzeko daukagula oharazten digu.



16. RSS irakurgailu programek kanalak bistartzeko ahalmena dute



Gure partehartzeak sortu du Internet berria

Internet berrian lan egiteko besteek sortutako informazioa aberastu ahal dugu, edo bestela norberaren web gunea eraiki dezakegu. Orain arte ikusi dugunetik, zerbitzuak ematen dizkiguten ehunka web gune dago Interneten, eta baliabide horiek gure web gune propioan txertatu ahal dira igorri nahi dugun mezua ahalik eta eraginkorragoa izan dadin.

Norberaren web gunea sortzeko bi bide nagusi daude: blogak eta wikiak. Norberaren txokoa Interneten eraikitzerakoan web gune horren helburuak markatuko du zein bide aukeratu. Gure web gunea gai bati buruzko iritzia plazaratzeko eta eztabaidatzeko helburuarekin sortzeko asmoa badugu, blog bat izan daiteke aukerarik onena. Baina auzolanean askoren arteko web gune bat eraiki nahi badugu wikia litzateke egokiagoa.

Web 2.0 fenomenoaren aitzindaria blog kontzeptua izan zen eta horren eraginez garatu dira gainerako zerbitzuak eta Internet berriaren mugimendua bera. Dakigunez, blog batean oso era errazean idatz dezakegu ezagutza teknikorik ez informatikorik gabe. Blog batek beti dauka idazle nagusi bat, blogaren jabea normalean, eta berak argitaratzen ditu sarrerak, bisitariok argitaratutakoari buruz gure iritzia emateko beta daukagu baina ez bloga aldatzeko edo garatzeko. Blog batean edukiak denboraren arabera berez antolatzen dira eta horregatik blog guztiek egutegia daukate funtsezko tresnatzat. Bestalde, blog batean argitaratzen den sarrera batek etiketak izan ditzake eta horien bitartez edukiak bilatu eta kudeatuko ditugu.

Blog adibideak jartzerakoan oso zaila da bat hautatzea milaka daudelako. Edonola ere, bi hauek aipa ditzagun blog bat zer den ez dakienak ideia bat har dezan: <http://www.eibar.org/blogak/irigoien/> argazkien bloga eta <http://www.matraka.info/blogak/jmartin/> bertso eta poesiaren bloga.

Hezkuntzarako zuzentzen diren blogak atal berezi bat bezala ezagutzen dira blogosferan, ikus bibliografiaren [3] eta [4] erreferentziak, hezkuntza helburuko blogak edublog deitzen dira eta era askotakoak izan daitezke: irakasgaiaren bloga irakasleak bultzatua eta zuzendua, ikaslearen bloga irakasgaia edo irakasgaiak garatzeko, gai bati buruzko bloga, etab. Adibiderako hona hemen bigarren hezkuntzako irakasle guztientzat ereduagarria den bloga (edo edublog bat nolakoa izan daitekeen ikusteko jakin mina duen edozeinek bisita dezakeen web gunea): <http://ikastorratza.civiblog.org/blog/>.

Blogak sortzeko zerbitzuak asko eta asko direnez, jarraian doan **T2** taulan zerbitzua euskaraz eskaintzen dituzten batzuk aipatzen ditugu bakarrik. Irakurleak horiek eta beste batzuk iker ditzake eta gogokoena hartu bere blog propioa eraikitzeko:

Izena	Helbidea
Blogari	www.blogari.net
Blogak	www.blogak.com
NireBlog	nireblog.com
Mundua	mundua.com
Goiena	www.goiena.net

T2. Blog bat euskaraz sortzeko tresnen zerrenda laburra

Blogekin alderatuz wikiak bestelako zerbitzuak dira talde baten lankidetzan oinarritzen direlako, baina blogak bezala ez da inolako formakuntza teknikorik behar wikiak sortzeko eta garatzeko. Wiki adibiderik onena **Wikipedia** da non askoren partehartzearekin jakintzaren entziklopedia osatzen ari den. Hurrengo **T3** taulan wiki bat sortzeko hiru zerbitzu aipatzen ditugu nahiz eta asko gehiago egon, irakurleak azterketa sakonagoa egin nahi badu jo dezala helbide honetara <http://www.wikimatrix.org/> eta bertan aurkituko du wiki tresnen arteko alderaketak eta informazio zabala.

Izena	Helbidea
Wikispaces	www.wikispaces.com
pbWiki	pbwiki.com
WetPaint	www.wetpaint.com

T3. Wiki bat sortzeko tresnen zerrenda laburra

Esan dugunez Wikipedia litzateke wikirik ezagunena eta bere euskal bertsioa hemen kontsulta dezakezu <http://eu.wikipedia.org/wiki/Azala/> beste adibide bat ematerakoan umeen futbol talde baten jarraipena egiteko balio duen hau <http://danokbat-2006-07.wikispaces.com/> nabarmenduko genuke.



Internet berria eta euskara

Zenbaki absolutuei so eginez Internet berrian euskararen presentzia txikia dela uste dugu, egia da ere hizkuntzak duen hedapenerako euskararen presentzia nahiko handia dela. Baina hori baino garrantzitsuagoa beste alde hau litzateke, potentzialki euskarak ez luke bat ere arazorik izango Internet zerbitzuetan agertzeko, izan ere zerbitzuak kudeatzen dituzten enpresek erraztasunak ematen dituzte euren produktuak bestelako hizkuntzetara itzultzeko. Adibidez, eta zerbitzu bakar bat hartuz, **17** irudian erakusten da **Netvibes** taldekoek nola eskatzen duten itzulpen lanerako laguntza.



17. Internet enpresek interesatuta daude euren zerbitzuak hizkuntza desberdinetan eskaintzeaz, irudian ikusten da Netvibes programaren hiru laurdenak Esperanto hizkuntzara itzulita daudela (irudiko azpimarra gorria guk jarritakoa da)

Beraz, euskal komunitatearen esku dago ahalik eta zerbitzu gehien euskaraz erdiestea. Helburu hori lortzeko osagarriak diren bi bide daude, batetik administrazioa arduratu beharko litzateke euskaratze zeregin honetaz finantzabideak irekiz, eta, bestetik gu geuk zibernetok gure kabuz edo eta taldeka itzul genitzake gure gogoko zerbitzuak. Bi bideak elkar osagarriak dira eta nolabaiteko estrategia finkatu beharko litzateke, aurretik jarriz orokorragoak izan daitezkeen zerbitzuak eta ondoren bereziagoak izan daitezkeenak, lehenengoei administrazioak beharko litzaike erantzuna eman eta gainerakoei euskal komunitateak ekingo

lieke. Behar bada ez da oso erraza erabakitzea zein zerbitzu den orokor eta zein espezifikoa, baina badira ere adibide argiak zalantzarik ez dutenak, esate baterako, Google enpresak dituen dozenaka produktuen (Gmail, Picasa, Google Maps, Google Earth, Google Calendar, Google Homepage, Google Video, Docs & Spreadsheets, Google Talk, etab.) euskaratzeko ardura administrazioaren esku gera zitekeen; eta aurkako adibidea jarriz, GPS kokapenak kudeatzen dituen Wikiloc zerbitzu bereziaren itzulpena mendizale edo eta ziklisten mundutik atera daiteke.



Bibliografia

1. http://eu.wikipedia.org/wiki/Web_2.0

2. **Tim O'Really**

"What Is Web 2.0"

<http://www.oreillynet.com/pub/a/oreilly/tim/news/2005/09/30/what-is-web-20.html>

3. **Txomin Villarroel**

"Ikastorratza"

<http://ikastorratza.civiblog.org/blog>

4. **Aníbal de la Torre**

"Web Educativa 2.0"

EduTec. Revista Electrónica de Tecnología Educativa. 2006

<http://www.uib.es/depart/gte/gte/edutec-e/revelec20/anibal20.htm>

Dokumentua:

Estatistikak:	14.950 karaktere
	11 orrialde irudiekin
	8 orrialde irudirik gabe